

# DONE MILIANE

## ARTZAIN

Errioxa'ko Naxera ondoan ba-dago Bertzeo izeneko erri bat.

Aren auzoko Kogolla'n jaio zan san Millan.

Ogei urte ebazala, itzi inguruko masti ta gari-tzak, eta bere aitaren ardiak arturik, an erritik egoaldera ageri diran mendietara joan zan artzain.

Txirula bat eroan eban berarekin, eta a jo ta jo egoten zan ardiak zaindu bitartean.

Eta bere txirula ori jo ta jo egoan egun batean, loak artu, ta ames bat izan eban. Jauna agertu jakon amesetan, eta auxe esan eutson:

—Millan, itzi ardioik, eta erdu Neugana.

—Nora baiña, Jauna?

—Or goiko koba orretara!

—Zertarako, baiña?

—Neure eremutar biurtzeko!

\* \*  
M

## EREMUTARRA

Eta alan egin eban Millan gazteak.

Otoitzean asi bai, baiña, bereala aspertu zan.

Orduan, an bere erri ondoko gaztelu zarrean bizi zan Felices izeneko eremutarrengana biurtu zan.

Aren babesean irakurtzen ikasi, ta Liburu xantuetako Barri-Onaz jabetzen asi zan, eta otoitzean trebetzen.

Andik urte bira, Liburu Santuak besapean artu, ta lengo kobara abiatu zan. Eta an emon ebazan, otoitzean, berregei urte.

Lenengotan, bakar-bakarrik eta jencicz ingurata, gero.

Bai, laster jakin eben inguruko artzaiñek eremuatarren barria eta ara joiazan argi, aolku ta osasunaren eske.

\* \*

## ABADE

Arrigarri ta mirakulu asko egiten ebazala ta, laster iritzi zan aren izena Tarazona'ko gotzaiarengana.

Onak beregana deitu., ta abade egin ondoren, aren erri Bertzeo'ra bidaldu eban bertako parroku lez.

Ez luzaroko. San Millan'ek eliztarrek emoten eutzozean amarrenak artu, ta beretzat gordebearean, erriko beartsuei banantzen eutsiezan..

Txarto artu eben ori aren abade-lagunek, eta gotzaiaren aurrean salatu eben.

Eta onak, bereala, len emoniko parroku-agintzaritza kendu egin. eutson. Eta san Millan pozik baiña pozago, lengo bere basoko kobara biurtu zan.

\* \*  
\*

## JAINKOAREN MEZULARI

An, lengo koba orretan beste ames bat izan eban gure santuak. Eta auxe esan eutson Jaunak ames barri orretan:

—Nere erri au asko zabartu da. Jaunaren bideak itzi, ta aragi ta lurkoi atsegifietara biurtu da.

Zoaz ba, Millan, eta esaiozu nere erri oneri, bere pekatuaz damutzen ez bada, sekulako zigorra elduko jakola.

San Millan zarra zan orduko, eta gurdi batera igorik, erriz-erri asi zan Jaunaren deia alclarrikatzen.

On artu eben batzuk santuaren mezua. Baiña, barro egin eutsoen geienak. Eta andik laster, Gototarren errege Leobijildo etorririk, Errioxako lurralde guztia sakaildu ta ondatu eban. Andik urte batera, egunez eta nekez beterik santuki izan gure San Millan, 574 garrena zan.

## SAN MILLANGO KONBENTUA

Konbentu eder bat eraiki eben, Kogolla'ko auzoan, eta antxe eortzi santuaren gorpuzkiñak. Andik gero, moroak bertora sartu ziranean, San Millan'eo Santutegi au izan zan kristauen otoitz eta itxaropen-leku.

Naparroako erregeek moroak, azkenik, jaurti, eta ango errege Santxo Andiak (1030 Barreanean) boll, urte ta gitxi ederrez egindako illobian sartu ebazan San Millan'en gorpuzkiñak, eta aldare nagusian jarri.

\* \*

## BIZKAIKO ABADIAK

Laster zabaldu zan San Millanen izena ta eraspina Euskalerra guzian eta ez Errioxa ta Naparroa'n bakarrik, baita Araba ta Bizkaia'n ere.

Eta santuaren eraspenean onak arazo bereizi bat sortu eban Araba ta Bizkaian.

Gazteiz inguruan dagoan Armentia'ko elizbarrutipean egozan, 1084 bitarteraño, Araba ta Bizkaiko lurraldeak. Eta urte onetan Armentia'ko gotzai-barruti ori ken.clu, ta Kalahorrako gotzaipean jarri ebezen Araba ta Bizkaia.

Ez eben emengoek erabaki ori onartu izan; eta sekulako auziak sortu ziran arrezkerok: ez eben Kalahorra'ko gotzain eta aren ordeztakariak Bizkaian sartzen bere ixten; Araba ta Bizkaiko eliza asko Kogolla'ko San Millanen ardurapean jarri izan ziran, eta konbentu orretara bidaltzen eutsoezan, andik aurrera, euren eliz amarrenak.

Orduko agirietan ageri danez, eliz orreik «abadia» izena daroe eta «abadea», barriz, ango elizgizonak.

Eta ona emen gure auzia: benetako praileak ete ziran eliza orreitako parrokuak? Eta ortik bere etc dator Bizkaian bertoko elizgizonei «abade» cleitzeko oiturea?

**URKIOLA'k**